



8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Material berziklatuz jolasak egiteko kit-aren diseinu, produkzio, marketing, salmenta eta banaketarako ondorengo funtsezko jarduerak identifikatu ditugu:

1. Kamiseta zaharrak lortu

Kartelak egin eta hauen zabalkundearen bitartez, jendeari erabiltzen ez dituen kamiseta zaharrak eskatu zaizkie.

2. Materiala erosi

Kamisetak lortzearekin batera, materiala erosi da: errotuladore iraunkorrak, dadoak, josteko haria, paper itsasgarria, belkroa, egurrezko makiltxoak, serigrafiarako pantailak emulsionatuta eta serigrafiarako tinta.

3. Diseinuak egin

Kamisetak lortu eta materiala erosi bitartean, 4 tableruen diseinuak egin dira, baita xake-ko piezak identifikatzeko pegatinena ere. Jarduera hau funtsezkoa izan arren, hasieran baino ez da egin behar. Xake-ko piezen diseinua paper itsaskorrean inprimatu dira.

4. Poltsak egin

Kamisetak jaso ostean, aukeraketa egin eta tableroak serigrafiatu dira. Behin hau eginda, 4 marrazki ezberdinak dituzten 2 oihalak josi eta belkroa jarri da poltsa egiteko.

5. Argibideak eta bideoak egin

Aurreko jarduerekin batera, kit-a erabiltzeko eta jolas bakoitzera jolasteko argibideak idatzi eta maketatu dira, baita QR kode baten bitartez ikusi ahalko den argibideen bideoa egin ere. Bi ekintza hauek ere, hasieran baino ez dira egin behar. Honekin bukatzeko, maketatutako argibideak inprimatu dira.

6. Kit-ak prestatu

Aurreko 5 jarduerak egin ostean, kit-ak prestatu da. Egindako poltsaren barruan materialok sartu dira: dadoa, errotuladore iraunkorra, egurrezko makiltxoak, xakeko piezen pegatinak eta argibideak.



7. Bezeroak bilatu

Azokak eta sare-sozialak erabilia produktua ezagutarazi eta bezeroak bilatu dira. Horrez gain, eskola eta aisialdi elkarteekin ere harremanetan jarriko gara euren interesekoa izan daiteke-eta.

8. Salmenta eta banaketa

Kit-en salmentarako aurrez aurreko eskaintza eta online aukera jarriko dira. Lehenengoaren kasuan, salmentu-puntuak ezarriko dira, baita azokak baliatu ere. Online salmenten kasuan, webgunearen bitartez erosi ahal izango dira eta kasu horretan, paketeak prestatu eta Correos posta zerbitzu bitartez bidaliko dira.

Behin egiten diren jarduerak izan ezik, gainontzeko ekintzak lote bakoitzeko errepikatu.